


HAURREN HAUTESKUNDE PROGRAMA: EMAN BOTOA NIRE ORDEZ

Haurren eskubideei eta gizarte-partaidetzari buruzko komunitate-jarduera parte-hartzailea



Ciudades
Amigas
de la Infancia

unicef 

únete por la infancia

HAURREN HAUTESKUNDE PROGRAMA: EMAN BOTOA NIRE ORDEZ

Argitaratzailea:

UNICEF Espainiako Batzordearen Haurren Hiri Lagunak programa.

www.ciudadesamigasdelainfancia.org

Koordinazioa:

Gregorio Aranda

Sortzailea eta diseinua:

En Babia Comunicación Social, 2015.

www.estasenbabia.com

Ilustrazioak:

Miguel B. Núñez para En Babia Comunicación Social.

© Merkataritza xederik gabeko jatorrizko obra. Lizentziak baimendutako obra hau ustiatzeko ezinbestekoa izango da obraren egilea aitortzea. Jatorrizko obratik eratorritako bestelako lanak onartuko dira, betiere ez badira merkataritza xedeetarako sortu.



AURKEZPENA

UNICEFek haur guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu egiten duen guztian. Gure aliatuekin batera, 190 herrialdetan eta lurraldetan egiten dugu lan, konpromiso hori ekintza praktiko bihurtzeko. Gure ahaleginaren helburua da, batez ere, haur kalteberengana eta baztertuengana iristea, leku guztietako haur guztiei on eginez.

UNICEFen Espainiako Batzordean haurren eskubideak ezagutarazteko eta horien jarraipena zaintzeko lan egiten dugu, eta, horren barruan, gure herrian bizi diren haurren ongizatean zuzenean eragina duten pertsonekin eta erakundeekin egiten dugu lan.

HAURREN HAUTESKUNDE PROGRAMA: EMAN BOTOA NIRE ORDEZ ekimena Haurren Hiri Lagunak Programaren ekimena da. Hauteskunde ugari izango dituen urte hau baliatuta, eta haurrak protagonista izango dituen ekintza baten bitartez, arreta erakarri nahi da haurren partaidetza-eskubidearen gainean eta beharrezko Haurren Aldeko Estatu Itunaren gainean.

Hauteskunde-urte honek aukera paregabea eskaintzen digu haurrek eta nerabeek parte-hartzeko eskubidea badutela frogatzeko, nahiz eta bozkatzeko eskubidea ez duten. Gainera, haurrek eta nerabeek iritzi eta proposamen baliagarriak dituzte haiengan eragin handia duten gaietan, eta gizartearen osotasunak iritzi eta proposamen horiek aintzat har ditzan eskatu behar dugu.

HAURREN HAUTESKUNDE PROGRAMA: EMAN BOTOA NIRE ORDEZ ekimenaren bidez, hautesleen arreta erakarri nahi da. Adingabekoek bozkatzeko aukerarik ez dutenez gero, gogorarazi nahi da hautesleek haurrak eta nerabeak ere ordezkatu behar dituztela, eta horretarako, haien interesak eta eskariak aintzat hartu behar dituztela erabakiak hartzeko garaian eta bozkatzeko garaian.

Haurrek prestatutako eta hauteskunde-programa gisa aurkeztutako proposamenak –hainbat ekintzaren bidez zabalduko direnak– baliagarriak izango dira, halaber, hauteskunde-aldian haurtzaroa bistara ekartzeko; izatez, hauteskunde-aldi horietan, maiz, alboratuta geratzen dira haurrak eta nerabeak.

Dinamika hori 2015eko otsailean, martxoan eta apirilean modu kolektiboan egiteko planteatuta dago. UNICEFen Haurren On Lineko Parlamentuan parte hartzen duten Haurren Hiri Lagunetako Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseiluek egiteko planteatu da.

OSO GARRANTZITSUA:

Hemen planteatzen diren bistaratze-ekintzek haurrak eta nerabeak izango dituzte protagonista, eta haien ideiak eta proposamenak hedatzeko helburuarekin egingo dira. Ekintza horiek ez dira inola ere erabiliko alderdikeriaz edo hauteskunde-xedearekin, Haurren Hiri Lagunak Programaren xedeen erabat kontra baitago hori.



SARRERA

Haurren parte-hartzea da haurrek eta nerabeek haien bizi-baldintza indibidualetan eta kolektiboetan eragina duten gaiak inguruneko beste pertsona batzuekin jorratzen dituzten prozesua. Parte-hartzaileek gainerakoen duintasuna errespetatuz elkarreragiten dute, betiere helburu partekatuak lortzeko asmoz. Prozesuaren barruan, haurrek eta nerabeek haien erkidegoaren barruan zeregin baliagarria betetzen ari direla ikusten dute.

Haurren parte-hartzea sustatzeko garaian, haurren edo nerabearen ingurunerik hurbilenean, hau da, udalerrian, haien eskubideen berdintasuna bermatuko duten parte hartzeko prozesuak bultzatu beharko dira. Ildo horretan, testuinguru demokratiko batean, desberdintasuna, aniztasuna eta besteen aukerak errespetatzeko gauza izango diren pertsonak sustatuko dira.

Haurren parte-hartzea Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak aitortzen duen eskubide bat da. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean, 12. artikuluan, haurrek haiengan eragina duten gai guztietan beren iritzia adierazteko duten eskubidea jaso da. Eskubide horren aipamena egiten dute, halaber, 13. artikulua (adierazpen-askatasunerako eskubidea), 15. artikulua (elkartzeko askatasunerako eskubidea) eta 17. artikulua (informazio egokia jasotzeko eskubidea).

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak errotik aldatu du mundu osoan haurrak hartzeko eta tratatzeko modua, haurra eskubideak dituen subjektu gisa onartuta.



DINAMIKAREN HELBURUAK

1 Haurren eta nerabeen proposamenak jasoko dituen hauteskunde-programa landu ahal izateko beharrezko tresnak erraztea. Gai hauen inguruko proposamenak izango dira:

- 1.** Krisialdia eta familia.
- 2.** Hezkuntza-sistema.
- 3.** Teknologia.
- 4.** Integrazioa eta ezgaitasuna.
- 5.** Aisialdia.
- 6.** Ingurumena.
- 7.** Berdinen arteko indarkeria.
- 8.** Parte-hartzea.

(Gai horiek haurrek beraiek Haurren On Lineko Parlamentuaren bilkurretan eta Haurren eta Nerabeen Parte-hartze Kontseiluetako Estatuko Topaketetan aukeratutakoak dira).

- 2** Politika haurrengana hurbiltzea, demokraziarekin lotzen diren kontzeptu orokorrak eta hauteskunderen zentzua ulertzen lagunduz.
- 3** Helduei gogoraraztea adin txikikoek ezin dutela bozkatu, baina gizartea hobetzeko ideiak dituztela eta parte-hartzeko gogoia dutela.
- 4** Politika azpimarratzea, alderdi politikoei eta hautesleei gobernatzeko garaian edo gobernariak hautatzeko garaian haurrengan pentsaraziz.



EGITURA ETA IRAUPENA

Dinamika osoak 3 fase edo lan-saio ditu, eta honela banatzen dira:

1. SAIOA: Haurren hauteskunde-programa

Fase hori 2015eko martxoaren 27aren aurretik egin behar du Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseilu bakoitzak.

Sarrera

5 min.

1 Hauteskundeak haurren gauza al dira?

(zer dira eta zergatik dute eragina nigan hauteskundeek)

20 min.

2 Gure hauteskunde-programa

90 min.

(Jardueren iraupena gutxi gorabeherakoa da eta alda daiteke)

2. SAIOA: UNICEFen Haurren Onlineko Parlamentua

Onlineko parlamentuaren bilkura

2015eko apirilaren 7a, asteartea, 17:00etatik 19:00etara.

3. SAIOA: Eman botoa nire ordezkariari

Fase hori maiatzaren 8a baino lehen egingo da, egun horretan hasten baita 2015eko udal-hauteskundearen hauteskunde-kanpaina.

Sarrera

5 min.

1 Jende guztiak jakin dezala (txartela)

60 min.

2 Jende guztiak jakin dezala (ekintzak)

40 min.



1. Saioa

Haurren hauteskunde-programa

Lehen fase hori politika haurrengana hurbiltzeko baliagarria izango da. Garrantzi handikoa da funtsezko kontzeptuak jakitea eta, hortaz, hauteskunde batzuek haiengan zer eragin duten ulertzea. Izan ere, bozkatzeko aukerarik ez duten arren, haiekin ere zerikusia dute.

Hauteskunde-prozesuaren garrantziaz jakitun direnean, haien hauteskunde-programa osatzeko proposamenak bilduko dituzte.

Gogoratu lehen fase hori 2015eko martxoaren 27a baino lehen egin beharko duzuela. Bestela, ezin izango da Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseilu guztiekin modu kolektiboan lan egin, eta ezin izango da guztion artean Haurren Hauteskunde Programa bakar eta adostu bat lortu.



1

HAUTESKUNDEAK HAURREN GAUZA AL DIRA?

Materialak:

- 1. eranskineko txartel inprimatuak eta moztuak

Dinamikaren garapena

Parte-hartzaile guztiak zirkuluan eseriko ditugu, ikasgela eroso batean.

Ausaz banatuko dizkiegu 1. eranskineko txartelak, eta honako ordena honetan emango diegu hitza txartelak dituztenei:

1. Demokrazia
2. Bozkatzeko eskubidea
3. Gehiengo soila eta gehiengo osoa
4. Alderdi politikoak
5. Hauteskunde-programa
6. Udal-hauteskundeak
7. Autonomia-erkidegoko hauteskundeak
8. Hauteskunde orokorrak
9. Europako Parlamenturako hauteskundeak
10. Hauteskunde-kanpaina

Behin txartela irakurri denean, dinamizatzaileak iritzi egokiak azalduko ditu, parte-hartzaileen errealitatearekin zentratzeko. Helburua da hauteskunde batzuetan gertatzen denak beraiengan ere eragina duela ulertaraztea.

Kontuan izanik jarduera hau Haurren eta Nerabeen Parte-hartze Kontseilu guztiei zuzentzen zaiela eta kontseilu horiek Haurren Hiri Lagunak programaren barruan daudela, tokiko politikaren garrantzia nabarmenduko dugu, baita horretan haurrek eta nerabeek izan dezaketen zeregina ere.



Minutu batzuk eskainiko diogu honako alderdi hauei buruz gogoeta egiteari eta eztabaidatzeari:

- Ba al dakizue nor den gure udalerriko alkatea?
- Ba al dakizue zer alderdi politikotakoa den?
- Gobernuan izan diren aldi horretan, gustatu zaizun zer egin dute?
- Zer egin dute gustatu ez zaizuna?
- Zer egin zezaketen zuentzat eta ez dute egin?
- Ba al dakizue zuen udalerrian zer beste alderdi politiko dagoen?
- Uste al duzue batzuek eta besteek zuen interesak hartzen dituztela kontuan haien hauteskunde-programak aurkeztean edo gobernatzen ari direnean?

Eta gure hauteskunde-programa egiten badugu eta alderdiei, hiritarrei eta hedabideei helarazten badiegu, gu aintzat har gaitzaten?



2

GURE HAUTESKUNDE PROGRAMA

Materialak:

- Arbelak, orriak, koadernoak, ordenagailua edo gure proposamenak idazteko beste edozein euskarri, 2. eranskineko eredian oinarrituta.

Dinamikaren garapena

Dinamizatzailleak saioaren helburua zein den azalduko die parte-hartzaileei: gure hauteskunde-programan sartu nahi ditugun proposamenak idaztea. Gero, proposamen horiek eztabaidatuko dira eta beste udalerrri batzuetako haurrek egin dituzten proposamenekin osatuko dira, guztion artean dokumentu bakarra izango den Haurren Hauteskunde Programa osatzeko.

Parte-hartzaileen kopurua eta adinak eta haien interes pertsonalak aintzat hartuta antolatuko dira taldeak, betiere proposamenak aurkeztuko ditugun 8 gaien inguruan:

1. Krisialdia eta familia
2. Hezkuntza-sistema
3. Teknologia
4. Integrazioa eta ezgaitasuna
5. Aisialdia
6. Ingurumena
7. Berdinen arteko indarkeria
8. Parte-hartzea

Talde bakoitzeko parte-hartzaileei eskatuko diegu gai horiek taldeetan eztabaidatzea eta gai bakoitzaren inguruan nahi adina proposamen egitea. Ez dago proposamen kopuru minimorik, ezta maximorik ere, baina garrantzi



handikoa da proposamen horiek parte-hartzaile guztiak ordezkatzea, ahal den heinean bederen.

Aintzat hartu hauteskunde-programa batek proposamenak biltzen dituela, eta ez kexak. Gobernuan egongo bagina ezarriko genituzkeen neurriak eta konponbideak jaso behar dira.

Talde bereko haurrak, proposamen zehatz bat barnean hartu edo ez erabakitzeko garaian, ados jartzen ez badira, bozkatu egingo dute; proposamena gehiengo soilez onartzen bada, barnean hartu beharko da.

Parte-hartzaile batek gai horien barruan sartzen ez diren proposamenak erantsi nahi baditu, beste gai bat txertatu ahal izango du.

Talde guztiek haien ideiak idatzi dituztenean, talde bakoitzeko bozeramailea hautatuko da.

Parte-hartzaile guztiak lurrean eta aurrez aurre eseriko ditugu; talde bakoitzeko bozeramaileak, berriz, zutik geratuko dira.

Lehen gaia aztertu duen taldea bere proposamenak irakurtzen hasiko da. Denok ados al gaude proposamen horiek gure hauteskunde-programan txertatzearekin? Eskua jasota bozkatzeko dugu eta, gehiengo soilak alde badago, onartutzat emango dugu.

Bigarren gaikoek haien ideiak irakurriko dituzte. Aurreko kasuan bezalaxe, proposamenak bozkatzeko dira eta, proposamenen batek talde osoaren gehiengo soilaren onarpena lortu ez badu, ezabatu egingo da.

Horrela, talde guztien proposamen guztiak irakurriko dira, eta gai bakoitzean onartutako guztia bilduko duen Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseiluaren amaierako dokumentua osatuko da.

Garrantzi handikoa da zuen programaren amaierako dokumentua 2015eko martxoaren 27aren aurretik igortzea helbide honetara: ciudadesamigas@unicef.es Gaian hau adierazi beharko duzue: (zuen udalerraren izena)-(e)ko haurren hauteskunde-programa.

Horrela, parte hartzen duten udalerrietako dokumentu guztiak bildu ahal izango ditugu, eta parlamentuaren lehen bilkura prestatu ahal izango dugu. Bilkura horretan iritsiko gara haurren hauteskunde-programa komun eta bateratu batera.



2. Saioa

UNICEFen Haurren Onlineko Parlamentua

**Onlineko parlamentuaren bilkura:
2015eko apirilaren 7a, asteartea, 17:00etatik 19:00etara.**

Parlamentuaren saio horretan Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseilu bakoitzak aurkeztutako proposamenak entzun eta eztabaidatuko ditugu. Proposamen horiek bozkatuko ditugu, eta guztiok ordezkatzeko gaituen dokumentu bakarra sortuko dugu: Haurren Hauteskunde Programa.

Saioaren zati bat eskainiko diogu gure hauteskunde-programa ezagutarazteko lagungarria izango den toki- eta nazio-mailako hedapenerako ekintzak proposatzeari.

Espero zaituztegu!!!



3. Saioa

Eman botoa nire ordez

Dagoeneko badugu Haurren Hauteskunde Programa eta orain guztiek ezagut dezatela da garrantzizkoena.

Saio honen helburuak hurrengo hauek dira:

- Hauteskundeetan parte hartuko duten alderdi politikoek gure hauteskunde-programa ezagutzea eta haien programan txertatzea.
- Bozkatuko duten hiritarrek gudan pentsatzea eta gure interesak kontutan izanik bozkatzea.
- Hiritarrek jakitea, haurrak garen arren, ideia ugari dugula eta parte hartzeko eta gizartea hobetzeko gogo biziak ditugula.
- Hedabideek merezi dugun protagonismoa ematea eta gure programa hedatzen laguntzea.
- Gizarte osoak ezagutzea eta bat egitea Haurren Aldeko Estatu Itunean (www.enredate.org/yopidopacto eta www.unicef.es/pactoinfancia web-orrietan aurkituko dituzue parte hartzeko moduak).

Eta, horretarako, nola egingo dugun pentsatu eta erabaki behar dugu!!!



1

JENDE GUZTIAK JAKIN DEZALA (txartela)

Materialak:

- Kartoi meheak, koloretako errotuladoreak, orriak, lekeda...
- Interneterako sarbidea duen ordenagailua.

Dinamikaren garapena

Parte-hartzaile guztiak zirkuluan eseriko ditugu, ikasgela eroso batean, batzar baten moduan. Ahalbidetzaileak hau planteatuko du:

Jada Haurren Hauteskunde Programa esku artean dugula, zer egin dezakegu jende guztiak ezagut dezan?

Ahalbidetzaileak parte-hartzaileei entzungo die, eta honako galdera honen bidez gidatuko ditu:

Zer egiten dute alderdi politikoek haien programa ezagutzarazteko? (txartelak, liburuxkak, posta bidezko banaketak, mitinak, solasaldiak, hedabideetako agerpenak).

Guk erabakitzen dugunaz haratago, kanpainen dagoen alderdi politiko bati falta ezin zaion pieza bat alderdiaren txartela da. Hauteskunde-txartel horrek irudi bat eta ideia definitzeko eta botoa eskatzeko leloa izan ohi ditu.

Gure leloa, hots, Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseilu guztiok erabiliko dugun leloa hau da: Eman botoa nire ordeztu. Haatik, oraindik lelo hori komunikatzen lagunduko digun irudi ederreko txartela diseinatu beharko dugu.

(Ahalbidetzaileak Internet bidez aurkitutako txartelen irudiak erakutsiko dizkie, inspirazio-iturri gisa)



Parte-hartzaileak taldeka antolatuko ditugu, txartelean lan egin ahal izateko: lelo hori bera erabilita, hurrek nahi duten moduan eta nahi dituzten materialekin diseinatu ahal izango dute txartela (beraiek egindako marrazkiak, aldizkarietako eta egunkarietako ebakinak, hizkiak, argazkiak...). Txartel bat edo batzuk diseinatzeko nahi duten guztia erabil dezakete.

20a baino lehen igortzea honako helbide honetara:

ciudadesamigas@unicef.es. Gaiari hau adierazi beharko duzue: (zuen udalerraren izena)-(e)ko haurren hauteskunde-programarako txartela.

Hartara, txartel guztiak bil ditzakegu eta gu hobe ordezkatzeko gaituena hautatu ahal izango dugu. Txartela aukeratzeko inkesta bat egingo da on line 2015eko apirilaren 21etik 24ra bitartean.



2

JENDE GUZTIAK JAKIN DEZALA (ekintzak)

Materialak:

- Haurren Hiri Lagunak programaren antolakundeak Haurren Hauteskunde Programako txartelak eta liburuxka inprimatuak emango dizkie horiek eskatu dituzten udalerriei. Helbide elektronikoa honetan eskatu beharko dira: ciudadesamigas@unicef.es

Dinamikaren garapena

Parte-hartzaileei azalduko diegu Haurren Hiri Lagunak programaren idazkaritzak Haurren Hauteskunde Programaren txartelak eta programak bidaliko dizkigula, gure hedapen-ekintzak gauzatu ahal izateko.

Alabaina, zer egingo dugu txartel eta liburuxka horiekin?

Ahalbidetzaileak gogoraraziko du garrantzi handikoa dela ideia egingarriak bururatzea. Gure indarrak neurtzeko gai izan behar dugu, eta hasteko eta arrakastaz amaitzeko gauza izango garen ekintzak egin behar ditugu. Ez dugu zapuztu behar.

Parte-hartzaileen kopuruaren arabera eta sortzen diren ideien arabera, defini dezakegu gure ekintza-plana.


Egin ditzaketen ekintza batzuk proposatuko dizkiegu haurrei, haiek erabaki dezaten zein egingo dituzten:

- Gure programa udalerriko etxeetako postontzietan sartzeari.
- Hedabideei deitzea prentsaurreko batean gure programa aurkezteko.



- Gure hauteskunde-programa ikastetxeetan aurkeztea, haur guztiek ezagut dezaten.
- Gure udalerriko talde politiko guztiei gutuna idaztea, gure programa aurkezteko eta Haurren Aldeko Estatu Ituna eskatzeko.
- Kanpainaren hasiera gisa txartelak itsastea.
- Tokiko hedabideetara bidali beharreko prentsa-oharra egitea, bertan gu elkarrizketatzea eta gure hauteskunde-programa hedatzen laguntzea eskatzeko.
- Haurren Aldeko Estatu Ituna babesteko sinadurak biltzea udalerriko hiritarren artean.

Zer ekintza gauzatuko dugun erabaki ostean, lantaldeak osatuko ditugu eta egin beharreko zereginak zehaztuko dituen egutegia ezarriko dugu. Halaber, zeregin horiek egiteaz nor arduratuko den erabakiko dugu.



1. ERANSKINA

1

Demokrazia

2

Bozkatzeko
eskubidea

3

Gehiengo soila
eta gehiengo osoa

4

Alderdi politikoak

5

Hauteskunde
programaa

6

Udal hauteskundeak

7

Autonomia erkidegoko
hauteskundeak

8

Hauteskunde
orokorrak

9

Europako parlamenturako
hauteskundeak

10

Hauteskunde
kanpaina

1. ERANSKINA

(atzealdea)

Bozkatzeko eskubidea

Oraingoz Estatuan eta munduko ia herrialde guztietan, hauteskondeetan bozkatzeko adin nagusia izan behar da.

Europar, Austriar eta Zipren soilik dute 16 urteko gazteek bozkatzeko eskubidea.

Demokrazia

Demokrazia gobernu-forma bat da, non hiritarrek, bozkaren bidez, haien ordezkari izango diren gobernarriak hautatzen dituzten, herrialdea zuzentzeko.

Estatuko lehen hauteskunde demokratikoak 1977. urtean egin ziren.

Alderdi politikoak

Alderdi politikoa da udalerrri bat, erkidego bat edo herrialde bat gobernatzeko moduari buruzko antzeko ideiak partekatzen dituzten pertsonen talde antolatua.

PP, PSOE, Ezker Batua, UPyD eta Podemos dira Estatuan gaur egun dauden alderdi nazionalik garrantzizkoenak. Tokiko alderdiak ere badaude.

Gehiengo soilak eta gehiengo osoa

Gehiengo soilak esanahi du bozketa batean boto gehien jasotzen duen aukera hautatzen dela. Nahikoa da boto bateko aldea izatea.

Gehiengo osoa erabiltzen da bozketa batean bi aukera baino gehiago dagoenean eta aukera horietako batek guztira emandako botoen erdia gehi bat jaso duenean.

Udal-hauteskundeak

Udal-hauteskundera udal-gobernua hautatzeko egiten da (alkatea, zinegotziak...).

Normalean lau urtero egiten dira, eta autonomia-erkidegoetako hauteskondeekin batera egin ohi dira.

2015eko maiatzaren 24an egingo dira Estatuan udal-hauteskundeak.

Hauteskunde-programa

Hauteskunde-programa da alderdi politiko batek, gobernatzeko hautatzen badute, gauzatuko dituen neurrien eta proposamenen dokumentua.

Hauteskunde orokorrak

Hauteskunde orokorrak herrialdeko gobernu-taldea hautatzeko egiten dira (presidentea, ministroak, diputatuak, senatariak...).

Normalean lau urtero egiten dira.

2015eko amaiera aldean egingo dira Estatuko hauteskunde orokorrak.

Autonomiaerkidegoko hauteskundeak

Autonomiaerkidegoko hauteskundeak autonomia-erkidegoetako gobernu-taldea hautatzeko egiten dira (erkidegoko presidentea, sailburuak...).

Normalean lau urtero egiten dira, eta udal-hauteskondeekin batera egin ohi dira.

2015eko maiatzaren 24an autonomiaerkidegoetako hauteskundeak egingo dira, baina Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Andaluzian eta Katalunian beste data batzuetan egingo dira.

Hauteskunde-kanpaina

Alderdi politikoek haien proposamenak ezagutarazteko eta ahalik eta boto gehien lortzeko egiten dituzten ekintzak dira, betiere gobernatzea helburu izanik.

Ofizialki hauteskundeak baino 21 egun lehenago hasten dira.

Europako parlamenturako hauteskundeak

Europako parlamenturako hauteskondeetan Europako Parlamentuko diputatuak hautatzen dira, hau da, Europar Batasuneko parlamentuko diputatuak.

Bost urtero egiten dira. Azkenekoak 2014an egin ziren.

(egitura-iradokizun bat besterik ez da. Benetako dokumentua proposamen guztiak jasotzeko nahi bezain zabala izango da)

-(e)ko Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseiluko hurrek eta nerabeek ondoren zerrendatuko diren proposamenak aurkezten ditugu Haurren Hauteskunde Programan txertatzeko, baldin eta gainerako Kontseiluek onartzen badituzte.

Krisialdiaren eta familiaren arloan:

- 1 -----
- 2 -----
- 3 -----
- 4 -----
- 5 -----

Hezkuntza-sistemaren arloan:

- 1 -----
- 2 -----
- 3 -----
- 4 -----
- 5 -----

Teknologiaren arloan:

- 1 -----
- 2 -----
- 3 -----
- 4 -----
- 5 -----

Integrazioaren eta ezgaitasunaren arloan:

- 1 -----
- 2 -----
- 3 -----
- 4 -----
- 5 -----

2. ERANSKINA

Aisialdiaren arloan:

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Ingurumenaren arloan:

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Berdinen arteko indarkeriaren arloan:

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Parte-hartzearen arloan:

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Sinatua, -n, 2015eko aren (e)an

UNICEFen Espainiako Batzordeak Haurren Aldeko Itun handi honekin bat egin dezazuen eskatzen dizue haurrei, nerabeei eta gizarte osoari. Nola?

1. Partekatu dokumentu hau

Inprima dezakezu eta ikasgelara eraman edo zure eskolaz kanpoko jardueretako taldera eraman: kirola, musika, antzerkia, dantza, ingelesa eta abar. Irakurraraz iezaiezu zure lagunei eta egiazta ezazu zer iritzi duten: Ados al daude? Ideia gehiago bururatzen al zaizkie? Itunarekin bat egin nahi al dute?

2. Sinatu itunari atxikitzeko dokumentua

“Enredate”ren web-orritik eta onlineko parlamentuaren web-orritik deskarga dezakezu txantiloia. Edo, oraindik hobeto, ikasgela osoaren artean egin ezazue liburuxka honen edukia islatzen duen zuen txartela, eta sina ezazue amaieran konpromisoa.

3. Nik Ituna Eskatzen Dut sare sozialetan

Erakuts ezazue zuen babesaren zuen lagunekin edo zuen adinako pertsonekin komunikatzeko erabiltzen dituzuen sare sozial guztietan. Nik ituna eskatzen dut (Yo Pido Pacto) izenburupeko profilak, orriak eta hashtag-ak aurkituko dituzue sare sozial nagusietako UNICEFen profiletan.



Haurren Aldeko Ituna

zuen ongizatearen mende dago gure etorkizuna

parlamentoinfantil.ciudadesamigasdelainfancia.org
edo idatzi helbide honetara: pactoinfancia@unicef.es

unicef 
únete por la infancia